2001-07-25 aurkibidea

EUSKAL HERRIA 10
Gorenak 17na urteko zigorra berretsi du lau gazterentzat

Basaurin 1996an autobus bat erretzeagatik Entzutegi Nazionalak lau gazteri jarritako 17na urteko espetxe zigorra berretsi egin du Espainiako Auzitegi Gorenak. Beste biren aurkako 8na urteko zigorra ere berretsi du.

EUSKAL HERRIA 13
Gazteluko plazan istiluak

Espainiako Polizia gogor oldartu zitzaien lanen aurka protestan aritu zirenei Iruñean. Lanekin ados ez dauden herritar askok aurre egin zieten lanei.

EKONOMIA 14
ELAk dio erreforma fiskala enpresarien aldekoa dela

Hego Euskal Herriko fiskalitatea kritikatu du ELA sindikatuak; enpresarien aldekoa dela eta iruzurrari bide ematen diola uste du. Ildo horretatik, kontzertu eta hitzarmen ekonomikoek gardentasun falta izugarria dutela esan du Jose Elorrietak.

NAZIOARTEKOA 16
Tamilen erasoa Colombom

Colomboko, Sri Lankako hiriburuko aireportuari eta base militar bati eraso egin zioten atzo tamilek, 18 lagunen heriotza eraginez; 9 tamil tigre, bost militar eta gutxienez hiru zibil. Erasoan 13 hegazkin eta helikoptero suntsitu zituzten.

GAIAK 30
«Bonnekoa lor zitekeen akordiorik onena da»

Kyotoko Protokoloa berresteko Bonnen lortu berri duten akordioa «lor zitekeen onena» dela azaldu dio EGUNKARIAri Greenpeaceko Klima Politikarako zuzendariak. Igorpen kutsatzaileak murriztea lan gogorra izanen dela uste du.

Egunkaria euskaldunon 3.302. zenbakia

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde
Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai
Kontseilari Ordezkaria: Iñaki Uria
Zuzendaria: Martxelo Otamendi
Gerentea: Mikel Sorozabal
Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain Tel.: 943300222 Erredakzioko faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com
Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com
Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 800/90 I ISSN 1134-640X
OJDk IKUSKATURIKO HEDAPENA

ORDEZKARITZAK ■ **Araba:** San Antonio, 20-1. ezker. 01005 Gasteiz Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965
Nafarroa: Iratxe Monasterioa, 45-13.esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea Tel.: 948178079-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686
Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 BilboTel.: 944104046 Faxa: 944103715 Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114
Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pannecau 14, 1 503 Posta kutxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

martintxo



hizpideak

Torturatzeagatik zigortuak

1980an Zornotzan atxilotutako zazpi lagun torturatzeaz akusatutako hamar guardia zibiletatik zortzi zigortu egin ditu Bizkaiko Entzutegiak. Hogei urte geroago, baina Entzutegiak frogatutzat jo du zazpi zornotzarrek tratu txarrak jasan zituztela. Bere horretan da larria torturak gertatu izana eta epaiketa hogei urtean egin ezina, baina kasua are larriagoa egiten du torturapean itaundutako bi lagun oraindik ere kartzelan egoteak. Zigorrik handiena jaso duenari, bestalde, 20 hilabeteko espetxea eta hogei urteko inhabilitazioa ezarri diote, bost tortura delitugatik. Agerikoa da egindako delituak eta ordaindu beharreko zigorrak ez dutela proportziorik. Atzo bertan, autobus baten erreketan parte hartzeagatik lau gazteri hamazazpina urteko kartzela zigorra berretsi zien Auzitegi Gorenak.

Elkarlana euskal prentsan

Herria astekariak eta EGUNKARIAk lankidetza hitzarmena sinatu zuten atzo. Akordioak berehalako lehen emaitza izango du: astekariak argitaratzen dituen herrietako berriak EGUNKARIAren web orrian irakurri ahal izango dira aurrerantzean. Herrietako informazioaren erronkari aurre egiteko beste urrats bat da hau EGUNKARIArentzat, *Nafarkaria* eta *Bizkaia* gehigarriekin hasitako bidearen jarraipena. Akordioaren mamia, ordea, areago doa: euskal komunikabideen arteko elkarlana. Herrietako informazioaren atalean duen hutsunea betetzeko baliatuko du EGUNKARIAk akordioa; *Herria*-rentzat, berriz, paperetik internet sarera pasatzeko aukera da. Atzo Baionan sinatutako akordioa elkarlan bide baten lehen urratsa baino ez da, fruitu berriak eman behar dituen bide baten hasiera.


Hegazkinak suntsituta Colomboko aireportuan.


EGUNKARIAko eta Herriako ordezkariak atzo Baionan.

Tamilen erasoaldia Sri Lankako hiriburuan

LTTE Tamil Eelam-eko Askatasun Tigreak gerrilla tamilak borrokan hasi zenez geroztiko ekintza ausartena egin zuen atzo goizaldean, Colomboko nazioarteko aireportuari eta ondoko base militar bati erasotzean. Oldarraldiaren ondorioz 18 lagun hil ziren —horietatik gutxienez bederatzi gerrillariak ziren eta bost militarrak— eta tamilek hamahiru helikoptero eta hegazkin suntsitu zituzten. Armadak erantzun gisa gerrillariek uhartearen iparraldean dauzkaten posizioei eraso zien ordu batzuk geroago. Aste honetan izango da gerra zibila eragin zuten tamilen aurkako liskarren hemezortzigarren urteurrena.

Orotariko antzerki eskaintza Gasteizko jaialdian

Iaz zilarrezko ezteiak ospatu ondotik luzera murriztearen aldeko apustua eginagatik ere, 30 ikuskizun eta 42 saio hartuko ditu aurten bere baitan Gasteizko Antzerki Jaialdiak. Programatutako 30 ikuskizunetatik lau faxismoaren eta nazismoaren ingurukoak dira: Tanttaka Teatroa konpaniaren *Errudun jaioak* (publiko helduarentzako euskarazko obra bakarra), Tantarantanaren *Mein Kampf*, Lope de Vega konpainiaren *El diario de Ana Frank* eta Ur Teatroren *Sigue la tormenta*. Bortxakeria antzerkirako gai oparoa dela erakusten du horrek. Nolanahi ere, era guztietakoak dira aukerak, baita adinik txikikoenentzat ere.